

NAHI DUDALAKO! leloa ardatz hartuta, Bizkaiko 39 udalerrik abian jarriko dute Batxilergoan eta Lanbide Heziketan euskarazko ikasketak sustatzeko kanpaina.

NAHI DUDALAKO! ekimenari esker Bizkaiko 6000 gaztek Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasketak euskaraz jarraitzeko aukerari buruzko informazioa jasoko dute. Aipatutako kanpaina Alkarbide bilguneko kide diren hainbat udalek sustatu dute.

Guztira Bizkaiko 16 udalerrik eta 3 mankomunitatek parte hartuko duten kanpaina honen hartzaileak DBHko (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) 4. mailan ikasten ari diren gazteak dira. Ondokoak dira zehatz-mehatz ekimen honetan parte hartuko duten tokiko erakundeak: Abanto-Zierbena, Alonsotegi, Amorebieta-Etxano, Arrigorriaga, Balmaseda, Berango, Bilbao, Enkarterriko Mankomunitatea, Erandio, Etxebarri, Getxo, Gordexola, Laukiz, Maruri-Jatabe, Muskiz, Ortuella, Txorierriko Mankomunitatea, Uribe Kostako Mankomunitatea eta Zierbena.

NAHI DUDALAKO! da ekimen honen leloa. Hartzaile nagusiak orain artean ikasketak euskaraz egin dituzten gazteak dira, ondoko urteetan ere euren ikasketak, Batxilergokoak zein Lanbide Heziketakoak, euskaraz egiten jarraitzeko informazioa ematea da kanpainaren xedea.

Kanpainaren berri emateko diptikoa banatuko zaie gazteei. Diptiko horretan www.nahidudalako.com kanpainaren web gunearen berri emango da eta bertan gazteek Batxilergoa zein Lanbide Heziketa euskaraz egiteko duten eskaintzaren berri zehatza jaso ahal izango dute.

Kanpainak Nerea Alias, EITBko aurkezlearen laguntza izan du eta bera da web gunearen irudi nagusia. Web gunean gainera, gazteek lehiaketa baten parte hartu eta sari potoloak irabazteko aukera ere izango dute; besteak beste, musika eta irudi irakurgailuak, bideo-jokoen kontsolak (ipod, play station edo MP3 motakoak), etab.